Suomen Tasavalta - Republiken Finland - Suomiko Errepublikaz

Andoni Uzkeda Mateo. Iruñea

Zoragarria da Suomiko Errepublikaz ari garelarik bururat maizen heldu zaigun elea, haren aintzirak, haren basoak, negu lazgarriaren ondotik udan sortzen den bizitasuna. Zoragarria duen musika, heroi nazionala duten Sibelius haundiarengatik egungo Värttinä alairaino. Batera idurika ditzakegu hango landen kromatismoa eta Robert Kajanusen musikarena. Zoragarriak izan ez direnak, berriz, egungo egoera askearen aurreko mende ilun eta hitsak. Izan ere gaur egun 338.145 kilometro karratutan bizi diren bortz milioi eta hirurehun mila finlandiarren arbasoak Finlandian (Finlandia suedierazko izena da) orain dela hiru mila urte kokatu ziren. Badirudi hegoaldetik sartu zirela orduan, bertan bizi ziren laponiarrak iparralderantz joaraziz. Nahiz eta laponiarrekin genetikoki nahasi ez ziren, hizkuntza nagusituz joan zen (Ikus Luigi Cavalli-Sforza-ren “Geni, Popoli E Lingue” liburu mamitsua bezain argigarria). Gero aunitz urtez suediarren eraso latz-lazgarriak jasan behar izan zituzten. Baita errusiarrenak ere. Bi estatu haundi hauek izan dira, eskuarki, Suomi banatu dutenak. Errusiar inperioaren barnean zegoenean Suediaren aurkako buxona zen. Hau bezalako egoerei esker Finlandiak eskualde osoak galdu ditu (Karelia dugu adibide nagusia). Jakina, erasook ez ziren politikoak soilik, erran nahi baita bertzelako aferetan ere eragina izan zutela. Suediarren eragina pairatu zutenek Eliza Katolikoa zuten, errusiarren mende egon zirenek Eliza Greziarra zuten bitartean. Finlandiako natura joria Suediaren inperialismoari eusteko ustiatu zen.

Deusetan jarraiki aitzin jakin dezagun “suomi” hitzaren erranahiaz ez dela erabateko itzulpen osorik ediren. Dena den iduri du Estoniatik eta itsasoz bertan finlandiarra zen tribu baten izena izan litekeela. Hizkuntzaz denaz bezainbatean suomierak pairu latza nozitu behar izan zuela erran dezakegu. Hamaseigarren gizaldian hasi ziren lehendabiziko testuak idazten suomieraz. Oso litekeena da gertaera honek Finlandian berean luteranismoa errotzearekin zerikusia izatea. Ohar gaitezen gaur egun finlandiar ororen ehuneko laurogeita zortzi luterotar dela. Garai hartan administralgoa suedieraduna zen bitartean luterotarren eliza suomieraren aldekoa zen. Hamazazpigarren mendean, adibidez, hiru unibertsitatetatik bakar bat zen suomieraren aurkakoa. Aintzatetsi beharreko kontua da ordura arteko ikasgaiak suedieraz eta latineraz emaiten zirela. Lehen hizkuntz legea 1856.ean sinatu zen. 1883.ean hizkuntz dekretua. 1902.ean suomieraren egoera berdintasunetik arras hurbil zegoen. 1917.ean burujabetasuna erdietsi zuten. 1922.ean parlamendu askearen lehen hizkuntza legea onetsi zen.

Egungo egoerari gagozkiolarik suediera eta suomiera mail berean daude. Bertako funtzionariek bi hizkuntzak jakin behar dituzte eta jakin ezean itzultzaile bat paratuko da eta haren gastuak estatuak ordainduko. Arestian aipatu 1922.eko legeari esker suedieradunek beren ofizialtasun osoa gordetzen zuten arren suomieradunek status bera lortu zuten. Honek zekarrena hagitz garrantzi haundiko gaia zen, gizabanako ororen elebakartasun hutsean bizitzeko aukera. Estatuaren benetako elebitasuna alegia. Ikus ditzagun datu argigarriok:
1.a Legeak suomieraz eta suedieraz argitaratzen dira eta epai-mahaiak beti elebidunak dira.
2.a Irratia nahiz telebistak bi hizkuntzetan aritzen dira.
3.a Trenbideak elebidunak dira, baina geltoki eta tren guztiak ez.
4.a Unibertsitate gehienak suomieradunak, bakarren bat suedieraduna, bertze bat elebiduna.
5.a Eskolak erabat elebidunak dira. Bi hizkuntzetan irakasten da.

Finlandiarrek, beraz, erdietsi dute guk geure Nafarroa Osoan, Euskal Herrian alegia, erdietsi beharko genukeena, hots, benetako hizkuntz berdintasuna berma dezakeen bakarra: gizabanako elebakarren bizitza ahalbidetzea. Suomierari benetako bultzada eraginkorra eman ziona *Kalevala*ren argitaratzea izan zen. Kalevala koblakariek (bardoek) abesten zituzten herri leiendak ziren. Berauek, hamahirugarren gizaldian hasi zen ebangelizazioaren aurretik zinezko aztiak ziren (tietäjä) eta magia eta sendagintza burutzen zituzten. Halako jakintza izanik ere anitzetan ez zuten aditzera emaiten sorginkerian aritzeagatik epai-gondena-urka ez zitzaten. Kalevala izenak “Heroien Herria” adierazi nahi omen du eta, antza denez, izen bereko erraldoi

bat bere hamabi seme-alabekin bizi izan zen tokia. Lönnrot izan zen 22.800 bertsoak bildu zituena Karelia eskualde zoragarrian. Kristautasunaren aurrekoa da. Jakina, sinesmen berriak lehengo erljioa bereganatzen hasi ziren. Halako parekatze moduko zerbait egiten hasi zen Ukko, jainko indartsua, eta kristauen Jainkoaren artean. Hale ere ez dute erabat burutuko kutsatze hori eta sorginkeriaren bideak nahiz adibideak argi eta garbi agertuko dira Kalevalan.

Kalevalaren lehen argitalpena 1835.ean karrikaratu zuten. Elias Lönnrot izan zen Karelian barna ibili ondoren bildu zuena. Adituen ustez ahozko tradizio honek bi mila urtez iraun du Suomieradun lurraldeetan. Kalevalaren garrantzia Finlandiako kulturan nahiz hizkuntzan itzela izan zen. Hain itzela ezen, maiz aski, Finlandiako Epopeia Nazionala izendatua izan baita. Lönnrot-en lan mardulari esker bigarren bertsio-argitalpen bat sortu zen, 1849.ean. Aitzinakoaren bertsio berritua.

Elias Lönnrot

Suediaren menpe zegoelarik finlandiar kulturaren egoera ahuntzaren gauerdiko puzkerraren parekoa zen. Eskoletan zein administrazioan suedieraz egiten zen. Unibertsitateetan suediera eta latinera ziren erabilitako hizkuntzak. Hemezortzigarren gizaldiaren bukaeran, aldiz, Turkuko unibertsitatean finlandiar hizkuntza eta folklorea finlandiar kulturarentzat ezinbertzekoak zirela ohartarazi zuten. 1802.go apirilaren bederatzian Sammattin (hegoaldean) Elias Lönnrot sortu zen. Joskile baten zortzigarren semea izan zen. Bortz urterekin gauza zen irakurtzeko. Eskoletako hasierako komeriak, berriz, ez ziren nolanahikoak izan, ez baitzatekeen samurra izanen suomieradun huts batendako suedieraz ikasi behar izana. Ohar gaitezen orduko Finlandian ez zela suomieradun eskolarik. Unibertsitaterat sartu aitzin joskilearen lanak ere burutu behar izan zituen. Hondarrean bere ametsa lortu zuen eta 1822.ean Turkuko unibertsitatean onartu zuten.

1828.ean bere bidaiak egiten hasi zen. Egia erran Savo eta Kareliarat iritsi aitzin ez zuen ezer berezirik bildu. Bere abeslari-laguntzailerik bikainena Kesälahti-ko Juhana Kainulainen izan zen. Hari esker (eta Lönnrot-en lan eskergarri esker, prefosta) sei mila bertso idazten ahal ukan zituen gure biltzaile nekagaitzak. Bertzelako lanei iharduki behar ukan bazien arren bere betebeharrean ari izan zen arestian aipatu 22.800 bertsoak bildu eta idatzi arte. Homeroren Iliadaren antzeko zerbait bihurtu nahi izan zuen “bere” Kalevala. Baita lortu ere! Finlandiako eta Finlandiarren liburu nazionala da Kalevala. Hizkuntza finkatzeko ezinbertzeko tresna. Suomieraren hiztegiaren iturburu jori eta naroa.

Ohorezko lekua du Lönnrotek Suomiko Errepublika askean. Herrikidek begirunez aipatzen dute. Aitzatesteaz gain maite ere dute. Jakin baitakite zeinen lan ikaragarria egin zuen, jakin baitakite hark bildu ezean, beharbada, nehork ez zituzkeela bilduko eta, beraz, betikotz galtzen ahalko ziratekeela. Haren lana bere neurrian balioesten dute, doike. Noizko Euskal Herriko “Lönnrot-endako” behar duen onespena? Noizko haren ikasgaiendako behar bezalako begirunea? Noiz eman behar zaio Euskal Herriko Lönnrot den Azkue langile amorratuari behar duen ospea? Noizko Nafarroa Osoa Errepublikan euskaldun elebakarrendako behar den statusa? Geroak erranen, anartean ikas dezagun suomieradunek eman diguten adibidetik. Suomiko Errepublikan suomieraz eta Nafarroa Osoan euskaraz, baita belenabarrak ere!